

Euskal erbestealdiari buruzko Nazioarteko XI. Biltzarra: integrazioaren eta identitatearen artean

Aurten ere Euskal erbestealdiari buruzko XI. Biltzarra egin zen Donostiako campusean, integrazioari eta identitatea mantentzeko eskainia. Azaroaren 10ean, 11n eta 12an izan zen eta helburua hauxe izan zen: 1936-1939 bitarteko erbestealdiko Euskal Herriko memoria historikoa berreskuratzearen bidez, egokitzen ari diren gizarteetan identitate eta integrazio fenomenoek ekar ditzaketan arazo ugariak aztertzea.